

# ETIKA ETA JOKABIDE KODEA

Zumaiako Udala



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



GOBIERNO  
DE ESPAÑA



Plan de Recuperación,  
Transformación  
y Resiliencia



Zumaiako Udala

# ETIKA ETA JOKABIDE KODEA

## 1. artikulua.- Xedea

Etika eta Jokabide Kodearen helburua da kultura etiko bat garatzea iruzur, ustelkeria eta interes-gatazkei aurrea hartzeko, eta, halaber, Zumaiako Udaleko langile guztien jokabideak izan behar dituen oinarriko printzipioak ezarri eta bermatzeko.

## 2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Kode hau honako pertsona eta erakunde hauek bete beharko dute:

- Zumaiako Udaleko langile guztiek, baldin eta SEMren jarduketak erabakitzeke, izapidetzeko eta betearazteko jarduketak egiten badituzte.
- Zumaiako Udalarekin lotutako gainerako entitate eta erakundeek, baldin eta horien kudeaketa, edozein titulugatik, Udalaren erantzukizuna bada.

Halaber, Zumaiako Udalarekin lan-harreman zuzena duten eta harekin lankidetzan aritzen diren pertsoneri aplikatuko zaie, eta kode honen oinarriko printzipioak ezagutu eta errespetatu beharko dituzte.

## 3. artikulua- Enplegatu publikoen eginbehar eta printzipio gidariak

Enplegatu publikoek arretaz bete beharko dituzte eman zaizkien zereginak eta interes orokorrak zaindu, betiere, Konstituzioari eta gainerako antolamendu juridikoari begiratuta eta haiekin lotuta; printzipio hauek oinarri hartuta jardun beharko dute beti: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua; horiexek dira enplegatu publikoen jokabide-kodearen abiaburu, ondorengo artikuluetan erregulatuko diren printzipio etikoak eta jokabide-printzipioak oinarri izanik.

## 4. artikulua- Printzipio etikoak

Kode hau honako printzipio etiko hauek osatzen dute:

- a) Enplegatu publikoek Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.
- b) Enplegatu publikoen jardunak herritarren interes orokorrak betetzea izango du xede, eta inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboak izango ditu oinarri, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiar-tekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.
- c) Beren jarduna leialtasunaren eta fede onaren printzipioen arabera izango da, bai lanean diharduteneko Administrazioarekin, baita nagusi, lankide, menpeko eta herritarrekin ere.
- d) Enplegatu publikoen jokabideak oinarriko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua izango du oinarri, eta saihestu egingo ditu era guztietako bereizkeriak, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia,

desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla-eta sor litezkeenak.

- e) Ez dute parte hartuko interes pertsonala duten gaitan, ez eta jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere, baldin eta lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete.
- f) Enplegatu publikoek, lanpostu publikoaren betebeharrakiko interes-gatazka sortzeko arriskua dagoenean, ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute pertsona nahiz erakundeekin parte hartuko finantza-eragiketetan, ondarezko betebeharran edo negozio juridikoetan.
- g) Enplegatu publikoek ez dute pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesedetraturik onartuko, ez eta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- h) Eraginkortasun-, ekonomia- eta eragimen-printzipioen arabera jardungo dute; eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezzen zainduko dute.
- i) Enplegatu publikoek ezin dute, tartean bidezko arrazoirik izan gabe, administrazio-prozedurak edo tramiteak azkartzeko edo ebazteko eraginik izan; are gutxiago, horrek pribilegioa badakar kargu publikoetako titularren alde edo beren familiarrekoen edo inguru sozialaren alde, edo kaltea badakar hirugarren batzuen interesen aurka.
- j) Enplegatu publikoek arretaz beteko dituzte eginkizunak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta, hala dagokienean, epe barruan ebartziko dituzte eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.
- k) Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazio-printzipioari jarraituz beteko dituzte dagozkien eskurantzak, eta saihestu egingo dituzte, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoaren jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketen jokabide guztiak.
- l) Sekretupean gordeko dituzte sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatuko dute beren kargua dela-eta dakizkiten gaietara buruz; eta eskuratu duten informazio hori ezin izango dute erabili ez beren mesederako, ez hirugarren batzuen erako, ez eta interes publikoaren kalterako ere.

## **5. artikulua- Jokabide-printzipioak**

Kode hau honako jokabide-printzipio hauek osatzen dute:

- a) Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.
- b) Enplegatu publikoek, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzerakoan, zuhurtasunez eta arretatsu jokatuko dute, eta ezarritako lanaldia eta ordutegia beteko dute.
- c) Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionali men egin behar diete, argi eta garbi ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, ikuskaritza-organo egokiei jakinarazi behar diete berehala horren berri.
- d) Eskubidez jakin beharreko gaietara eta arloetara buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta laguntza emango diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete ditzaten.
- e) Enplegatu publikoek baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko norberaren edo hurbilekoen mesederako. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko eginbeharra ere izango dute.
- f) Ez da abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik onartuko, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoari kalte egin gabe.
- g) Dokumentuen ziurtasuna eta iraupena bermatuko dituzte, agiri horiek ondorengo arduradunei eman eta eskualdatu ahal izateko.
- h) Eguneratuta izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.

- i) Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.
- j) Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jarriko dituzte, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko, beren ustez egoki diren proposamenak. Horretarako, enplegatu publikoek eta herritarrek egindako proposamenak jasotzearen lana zentralizatzeko eskumena emanda, egoki iritzitako instantzia sortzeko aurreikuspena egin ahal izango da, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko.
- k) Herritarrari berak eskatutako hizkuntzan erantzungo zaiola bermatu behar dute, hizkuntza hori lurralde horretan ofiziala bada.

## **6. artikulua- Gobernu onaren printzipioak**

Honako hauei aplikatuko zaie artikulua hau: gobernu kideei, estatu-idazkariei eta Estatuko Administrazio Orokorreko eta Estatuko sektore publikoko erakundeetako gainontzeko goi-karguei –diren erakundeok zuzenbide publiko edo pribatukoak, Administrazio Orokorri lotutakoak edo haren mendekoak–. Artikulu hau aplikatuko zaie arlo honetan aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko edo tokiko araudiarekin bat etorri goi-kargutzat hartzen diren goi-karguei edo parekoei, toki-erakundeetako gobernu-batzarretako kideei barne. Horretarako, goi-kargutzat joko dira interes-gatazken arloko araudia aplikatuz halakotzat hartzen direnak.

### a) Printzipio orokorrak:

1. Gardentasunez jokatu dute gai publikoak kudeatzean, eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioekin bat etorri eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin.
2. Zerbitzu publikoaz arduratuz beteko dituzte beren eginkizunak, printzipio horien kontra doan edozein jokabide saihestuz.
3. Inpartzialtasun printzipioa errespetatu dute, eta, beraz, interes partikular ororen aurrean, irizpide independentea eta interes horrez bestekoa izango dute.
4. Beren eginkizunak betetzean, berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua ziurtatu dute.
5. Behar besteko arretaz jokatu dute beren eginbeharra betetzean, eta kalitatea bultzatu dute zerbitzu publikoak ematean.
6. Jokabide duina izango dute, eta herritarrak arreta bereziz tratatu dituzte.
7. Beren erabaki eta jardueren eta zuzentzen dituzten organismoen erabaki eta jardueren erantzukizuna hartu dute beren gain, hartara eragotzi gabe legez eska dakizkiekeen beste batzuk.

### b) Jarduteko printzipioak:

1. Dedikazio osoz eta bateraezintasunak eta interes-gatazkek arautzeko araudia erabat errespetatuz beteko dute beren zeregina.

2. Beren eskumenak betetzean jakin dituzten egitate edo informazioei dagokienez, behar den zuhurtziaz jokatuko dute.
3. Arauz kanpoko jokabideren baten berri izanez gero, eskumena duten organoei jakinaraziko diete.
4. Boterea zertarako jaso duten, horretarako baino ez dituzte gauzatuko indarrean den araudiak ematen dizkieten botereak, eta interes publikoa edo administrazioen ondarea arriskuan jar dezakeen ekintzak saihestuko dituzte.
5. Ez dira beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan inplikatu, eta ez dute esku hartuko, baldin eta tartean beren objektibotasunari eragin diezaiokeen kausaren bat badago.
6. Ez dute berentzat oparirik onartuko, baldin eta opariok ohiko erabilera edo erabilera soziala edo kortesiazkoa gainditzen badute, eta ez dute onartuko abantaila-egoeraren batean eskainitako zerbitzurik edo mesederik, baldin eta horrek baldintzatu egin badezake beren eginkizunak betetzea. Garrantzi instituzional handiagoa duten oparien kasuan, dagokion administrazio publikoaren ondareari gehituko zaizkio.
7. Gardentasunez beteko dituzte beren eginkizunak.
8. Baliabide publikoak behar bezala kudeatu, babestu eta gordeko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili aplikatzekoa den araudiak onartzen dituenetatik kanpo dauden jardueretarako.
9. Ez dute Administrazioan daukaten posizioa erabiliko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.

#### **7. artikulua-** *Hautagaitzak kontratatzeko eta ebaluatzeko prozeduretako eraginkortasuna eta objektibotasuna*

Hautagaitzak kontratatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna, ezagutza, esperientzia, merezimendua eta errendimendua hartuko dira kontuan. Giza Baliabideen Sailak hautagaiaren arraza, generoa, adina, erlijioa eta sexu-orientazioa kontuan hartu gabe jardungo du, aukeraberdintasuna sustatze aldera.

#### **8. artikulua-** *Iruzurrezkoak izan daitezkeen jarduketak jakinaraztea*

Zumaiako Udaleko langile publiko guztiek, Kode Etikoaren urraketaren bat egin dela jakin badute edo susmo arrazoitua badute, salaketen kanal baten bitartez eman beharko dute horren berri. Era berean, ezin da ondorio negatiborik egon jakinarazpenak fede onez egiten dituzten langileen aurka.

#### **9. artikulua-** *Etika eta Jokabide Kodea*

Etika eta Jokabide Kode hau eraginkorra dela bermatzeko, Europako funtsen kudeaketarekin lotuta dauden eta funts horiekin lotutako edozein fase edo prozesutan parte hartzen duten Zumaiaiko Udaleko langileen artean luze-zabal hedatuko da.

#### **10. artikulua-** *Webgunearen bitartez hedatzea*

Arestian aipatutakoa gorabehera, Udalaren webgunearen bitartez ere hedatuko da, bai eta egokitzen jotako beste bide batzuetatik ere. Gainera, Next Generation EB programaren esparruan Zumaiaiko Udalarekin lanean arituko diren organo kudeatzaileei, kontratuen adjudikaziodunei, laguntzen erakunde onuradunei edo beste subjektu batzuei ere jakinaraziko zaie.

#### **11. artikulua-** *Berrikustea eta eguneratzea*

Etika eta Jokabide Kodea Osoko Bilkurak onetsi du 2023ko martxoaren 30ean eta agiri horren edukia aldizka berrikusiko eta eguneratuko du Osoko Bilkurak.



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



GOBIERNO  
DE ESPAÑA



Plan de Recuperación,  
Transformación  
y Resiliencia



Zumaiaiko Udala